

GAZTEEN EGOERAREN BILAKAERA EUSKADIN

2021-2024



Euskadin prekaritatea bortizki jasaten ari dira gazteak azken bi hamarkada hauetan, gure gizartean geroz eta kronifikatuago dago prekaritatea eta 2020 urtetik larriagotu eta areagotu besterik ez da egin, neurri handi batean Covid 19 pandemia izan dela eta, eta horrek ondorioak eragin ditu gazteriarengan, batez ere osasun mentalean, horregatik Gazteak idazkaritzatik salaketa eta sindikatuaren inguruko antolakuntzarekiko aldarrikapena egiten ditugu.

Horregatik, Euskadiko CCOOko Gazteak Idazkaritzatik egoeraren balantze hau egitea erabaki dugu, bilakaeraren azterketa bat eginez euskal gazteriaren lan eta gizarte egoeraren erradiografia bat izango balitz bezala eta era beran agintaldiaren hasieran, 2021eko ekainean genuen egoerarekin alderatzeko.

Txosten honek lurraldeko gazteei eragiten dieten hainbat gai lantzen ditu, enplegua, etxebizitza, asoziazionismoa, etorkizuna edo osasuna, arreta berezia jarrita osasun mentalaren tasan. Datuen banaketa egin dugu adin eta sexu tarteetan. Txosten honetako datuak 2023 abenduan daude gaurkotuak eta Gazteen Euskal Behatokia eta Estatuko Gazteen Behatokitik atera ditugu.

Azkenik, gaur egungo irakurketa soziopolitikoa egin dugu eta Euskadiko gazteen bizi kalitatea hobetzen lagun dezaketen gako batzuk.

1. Enplegua

Lehen aipatutako bi behatokien datuen arabera, gazteen enpleguaren inguruko datu kezkarriak badaude, beste datu batzuetan ordea hobekuntzak sumatu dira, ahalik eta zehatzen azalduko ditugu:

Euskal gazteriaren langabezia tasak (16-29) beheranzko bilakaera izan du %17,4tik 2020 urtean %12,6ra pasaz 2023 urtean. Aintzat hartu behar dugu euskal gazteen okupazio eta jarduera tasek igoera txikia bat izan dutela, 2020ean %42,3 eta %48,9tik %43 eta %49,1era pasa dira.

Hala ere gogorarazi behar dugu Euskadin langabezia tasa %7tik gertu dagoela. Beraz, gazteek Euskadin ia tasa hori bikoiztu egiten dute.

Kontratuen denborazkotasuna %46 da, horrek esan nahi du Euskadin gazteen kontratuen 10etik ia 5 aldi baterakoak direla. Arlo honetan ere hobekuntza bat sumatu dugu, 2020 urtean denborazko tasa hau %62,6 zen.

Partzialtasuna kontratuetan %32,4ean dago, honek esan nahi 10etik 3 gaztek hautatuta propioa izan gabe, asteen 30 ordu baino gutxiagoko lana egiten dutela. Denborazkotasunarekin gertatzen ez den moduan, ez dugu aldaketa handirik ikusten, 2020ean partzialtasun tasa %33,5 baitzen.

Produkzio sektoreka aztertzen badugu lan jarduna ikus daiteke Euskadin gazte gehienak hirugarren sektorean dutela enplegua. Horrela aztertu ditugu 2023 urteko EPAren datuak, Euskadin 20 eta 24 urte bitartean industria sektorean 6100 gaztek egiten dute lan zerbitzuetan ordea 30.000 inguru adin tarte berean.

Datuak sexuaren arabera banatzen baditugu, euskal emakume gazteei gizonezkoei baino gehiago eragin diela ikus dezakegu. Eta enpleguaren errekuperazioa eta egon den hobekuntza txikiak onura gehiago ekarri die gizonezko gazteei emakumezkoei baino.

Lehenik, Euskadin lanean ari diren emakumeen tasa %41,3koa da gizonezkoen %44,6aren aurrean. Bestetik, txostenean azpimarratu nahi dugu joera argia erakusten duten bi datu laneko arrakalari dagokionean Euskadiko lan merkatuan.

Batetik, Euskadin emakumeen partzialtasun tasa gizonezko gazteenarekin alderatuta bikoitza baino gehiago da, %23,8 %42,2aren aurrean, kontuan izanda langabezia tasa antzekoa dela bi sexuetan, %12 gizonezkoetan eta %13 emakumezkoetan.

Bestetik, Produkzio sektoreari dagokionean joera argia ikusi dugu Euskadin, lana duten emakume gazteen artean lan hau batez ere zerbitzu sektorean izaten da; 2023 lehen hiruhilekoan 20-24 urte bitartean 12.000 emakume zeuden zerbitzu sektorean lanean gizonezkoen 11.200en aurrean. Industria sektorea aztertzen badugu, ikus dezakegu datua kontrakoa dela, sektore honetan 4.300 gizonezko enplegatu dauden bitartean, emakumeak 1.200 besterik ez dira 20 eta 24eko adin tartean.

Horrek ere beste datu bat erakusten du joera argia duena eta gizonezkoak bideratzen dituen arriskugarritasun handiagoko sektoreetara, lan istripuen tasa %54,7 da gizonezkoen artea eta %21,2 emakumezkoen artean.

Beraz, Euskadiko CCOOko Gazteak Idazkaritzatik ikusten dugu Euskadin, lan merkatuan gazteentzat denborazkotasun tasa kezkagarria dela oraindik ere nahiz eta sindikatu honek sinatutako lan erreformari esker jaitsi egin den. Erronka nagusiak partzialtasun eta istripu tasak dira eta bi horietarako ezinbestekotzat jotzen dugu antolakuntza sindikala, sindikatuak indartsuak diren lantokietan tasa hauek nabarmen txikiagoak baitira.

Aurreko hamarkadan prekarietatearen kronifikazioaren arriskuaz ari baginen Gazteriaren Euskal Behatokiaren, Estatuko Behatokika eta Biztanleria aktiboaren inkestaren datuekin ikus dezakegu prekarietate hau dagoeneko ezarrita dagoela euskal lan merkatuan, batez ere 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean eta larriagoa da oraindik adin honetako emakumeengan, nahi ez den partzialtasuna edo hileko soldata garbia bezalako faktoreek, gaur egun oraindik ere, sexu arteko alde garbia erakusten dute.

Azkenik erreferentzia egin nahi diogu negoziazio kolektiboak duen eraginari, sindikatu moduan eragiten baitigu, nahiz eta gobernuak gutxieneko soldata igotzeko ahalmena duen, sektore bakoitzeko igoera eta hobekuntzak sindikatu eta patronal artean negoziatzen dira; era honetan, Euskadin hitzarmen kolektiboen sinaduren gorakadak gazteen soldata igoeran islatu da. Horregatik, agertzen da hileko soldata garbien hazkundea, batz bestez 1385 eurotik 2020 urtean, 1465 eurora 2023 urtean. Hala ere dagoen belaunaldi arteko arrakala salatu nahi dugu Euskadin 40 urtetatik gorako soldata batz bestekoa 2000 euro baino gehiagokoa baita. Soldatek gora egiten jarrai dezaten beharrezkoa da euskal gazteria lantokietan antolatzea eta negoziazio kolektiborako plataformak babestea, antolatuta dagoen gazteriaren proposamenak jasotzen baitituzte; hau da, sindikatua ez da gugandik at dagoen zerbait, baizik eta gure bizi baldintzak hobetzeko tresna bat.

2. Etxebizitza

2023 urteari erreferentzia egiten dioten Euskal Gazteriaren Behatokiaren datuei dagoenean, txosten hau egiteko topatu ditugun gaurkotuenak, aurreko puntuan aipatzen genuen prekarietateak Euskadiko gazteon bizitzako eremu desberdinetan eragina duela baieztatu dezakegu, horietako bat etxebizitzarena.

Euskadin emantzipazio tasa %34,5ekoa da (34 urte arteko gazteak kontuan hartuta). Hala ere, Europar Batasunean emantzipazio tasa txikienetakoa duenatarikoak izaten jarraitzen dugu, Europako batz bestekoa %51,8 baita. Gainera, atal honetan atzera pausu txiki bat egon da 2020ean emantzipazio tasa %35,1eko baitzen, eta emakume gazteek emantzipazio tasa altuagoa dute (%37,6, %30,9aren aurrean).

Txosten honetan islatu nahi dugu baita ere kezkarria den beste datu bat gazte langileen erosteko ahalmenari eta ohiko etxebizitzaren gastuari dagokionean, alokairua edo hipoteka kuota izan. Behatokiaren datuek agertzen dute Euskadin, gazte batek batz beste bere soldataren %56,9 bideratu behar duela hipotekaren gasturako eta alokairuan dagoen pertsona batek %51,9. Honekin ondorioztatzen dugu Euskadiko gazteek soldataren erdia gastatzen dutela etxebizitza erosi edo alokatzeko gastuetan, batez ere norbanako bizi proiektua egin nahi badute.

Etxebizitza erosi edo alokatzeko aukerei dagokienean, Euskadin gazteek alokairuaren alde egiten dute; gainera 18 eta 34 urte artean alokairuan emantzipatutako gazteen ehunekoa nabarmen igo da azken hamabost urteetan: 2006ean %19 bakarrik zen bitartean 2023an alokatutako etxebizitza batean bizi diren gazteak %38,1 dira.

Arazo honen kausa nagusietako bat enpleguaren prekarietatea da, gure lurraldean bereziki nabarmena dena; prekarietate horretatik sortzen da gero eta ohikoagoak diren segurtasun gabezia eta ezjakintasuna, ondorioz, gazteek ez dute egonkortasun ekonomikorik, eta ez dute benetako autonomiarik edo leku jakin batean errotzeko aukerarik. Bestetik, etxebizitzaren erosketan, gazteek etxebizitza erosteko hipotekarako kreditua eskatzen dutenean, banketxeak hainbat abal eskatzeak edo kreditua ukatzeak kaudimen ekonomikorik ez izateagatik, izan ere Euskadiko gazte enpleguak duen behin-behinekotasunarekin, partzialtasunarekin eta soldata txikiekin, etxebizitzaren prezio altuarekin batera, jabetzan zein alokairuan emantzipatzea utopian bihurtzen du.

Analisi hau egiterakoan etxebizitzaren prezio altua aintzat hartu behar dugu (bai jabetzan, bai alokairuan) higiezinaren espekulazioa dela eta, gazteek ezin dute ekonomikoki lehiatu funts putreekin edo atzerritar aberatsekin etxebizitza bat erosteko edo alokatzeko garaian; hiri nagusietako langile-auzo askotako gentifikazioak gazteak hazi diren auzoetatik botatzen ditu eta periferia edo hiritik kanpo joatera behartzen ditu, beraz etxebizitza partekatu behar izatea da bihurtzen da emantzipaziorako konponbide.

Azpimarratu behar da Euskadin etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazte kopurua gora doala, 48233 gazte 2020 urtean eta 58289 azken datuen arabera 2023 urtean. Datu honen barruan ikus dezakegu emantzipatu beharra edo nahia duten emakume kopuruak ere gora egin duela, egoera berean dauden gazteen artean gehiago baitira gizonezkoak baino: 33315 emakume 24974 gizonezkoen aurrean. Hala ere argitara atera behar da bestetik, kezkarria den beste datu bat, 15 eta 29 arteko gazteen artean hamarretik lau gaztek uste du ezingo dela bere kabuz bizi datorren urtean nahiz eta hala nahi izan.

Nahi bai baina gazte askok ez dute bere burua benetako emantzipazio aukerarekin ikusten, horrek eragiten du Euskadin 2020 urtean 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean %41k uste izatea ezin izango dutela emantzipazio proiektu bat aurrera atera; ehuneko hori ez doa hobera azken urte hauetako balantzean eta 2023 urtean %43koa da emantzipatu gabeko gazteen tasa. Egoera horretan Euskadiko gazteek ezin dute gurasoen etxetik atera nahiz eta hala nahi duten. Kontzeptu horri adituek "zapuztutako emantzipazioa" esaten diote. Gazteak idazkaritzatik bakarrik bizitzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu hala nahi izanez gero.

Etxebizitza, eskubidea izan baino merkatuan espekulaziorako ondasun bilakatu da. Gainera enpleguaren prekarietateak zaildu egiten du euskal gazteria sindikatzea eta antolatzea, enpresan antzinatasun gutxiarekin buruan duzuna lanera berriro joateko deitzearen nahia denean zaila da aurrera pausua eman eta zure eskubideak exijitzea.

Bestetik, alokairuak zure soldataren parte handi bat eramaten badu beste era batera onartuko ez zenituzkeen egoerak onartzera eramaten zaitu, eta horrelako egoeratan osasun mentala trendig topic bihurtu behar izateko haztegia sortzen da.

3. Osasuna

Euskadiko gazteen bilakaerari buruzko txosten honetan aztertuko dugun azken ardatza osasunarena da, eta hainbat adierazletatik aztertuko dugu, enpleguarekin eta etxebizitzarekin bat etorri egoera benetan kezkarria dela erakusten digutenak. Datu gisa, Euskal Gazteriaren Behatokiaren 2023ko egoeraren txostenak erakusten dizkigunak erabiliko ditugu.

Gazteen osasun txarraren prebalentzia tasatik hasiko gara: goranzko joera ikusi dezakegu norberaren osasun txarraren pertzepzioan, %2,4tik 2008an %6,3ra pasata 2023an 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan beren osasuna halamoduzkotzat, txartzat edo oso txartzat hartzen dute. Aurrez egindako beste ikerketetan estatu mailako datu hori Europar Batasuneko beste herrialdekoekin alderatuta Espainia ehuneko txikiagoetan egon ohi zen, orain tasa hau berdindu egin da.

Euskadin 30 urtetik beherako herritarrengan osasun txarra ia hirukoiztu dela ikusten badugu ere, zeintzuk dira osasunaren okertze horren kausak? Osasun arazo kronikoen tasari arreta jartzen badiogu, hipertentsioa, kolesterola, asma edo alergiak esaterako, bilakaera ez da ia sumatzen, %18,3tik 2018an %18,5era pasa da 2023 urtean. Orduan, zergatik dute Euskadin gazteek osasun okerragoa?

Norberaren osasunarekiko gogobetetze maila 10etik 8,7 zen 2018an eta 7,2 da orain 2023 urteko datuei so egiten badiegu. Gainera kezkarria den eta gora egin duen datu bat ikusi dezakegu, azken lau astetan depresio edo antsietate sintomak izan dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak %8,3 izan ziren 2018 urtean eta %18,9ra pasa gara orain.

Tasa horiek sexuaren arabera banatzen baditugu, ikusi dezakegu emakume gazteen %25,6k antsietatearekin edo depresioarekin lotutako sintomak izan dituztela, eta gizon gazteen %12,4k. Beraz, enpleguaren kalitate okerragoak, lehenago emantzipatzeko beharrak, soldata eta baldintza txarragoak dituzten enpleguetan kronifikatzeak eta gazteen eremuan indarkeria matxisten kasuak areagotzeak, horrelako gaixotasunak izateko aukera handiagoak ematen dizkie emakume gazteei, eta ondorio izugarriak eragiten dituzte gazteengan, eta norberaren, eta bereziki emakumeen, bilakaera pertsonalean eragiten dute.

Bestetik, eta ahaztu gabe medikamentuak beharrezkoak izan daitezkeela hainbat kasutan, horrelako sintomak edo osasun mentalekin lotuta dauden bestelako arazoak dituzten pertsonen medikazioa hautatzen dute tratamendu bakar moduan, ez baitute bestelako baliabideetarako sarbiderik. Hala ere, zenbait arazotan, antsietate kasu askotan esaterako, tratamendu psikologikoen eraginkortasuna tratamendu farmakologikoena baino handiagoa izaten da. Baina Osakidetzak 131 psikologo dauzka, horrek esan nahi du Espainiak duena baino batz besteko txikiagoa, 100.000 biztanleko 6 psikologo (5,7), eta bi hilabete baino gehiago kostatzen da hitzordua hartzea gainera osasun mentaleko profesional pribatu baten batez besteko kostua 60 €tik gorakoa da.

Aisialdi, joko eta kirol guneak baita espazio komunitarioak etengabeko pribatizazio jasaten ari bagara ere gazteek euren maila fisikoa, mentala eta soziala hobetzea bilatzen jarraitzen dute euren kabuz. Antsietatea eta depresioa gainditzeko askotan entzun diegu adituei gazteen ohitura txarrek eragina izan dezaketela, sedentarismoa eta kirolik ez egitea esaterako, funtsezkoak dira gure osasunaren egoeran; Ba, datuei begiratuta ikus dezakegu euskal gazteriaren %90ek kirol edo jarduera fisikoren bat egiten duela, 2018an ehuneko txikiagoa zen %86. Eta ohitura txarrei dagokienez, bai alkohol asko edatearen tasak bai tabakismoak behera egin dute; alkohola %47tik 2018an %34,3ra 2023an eta tabako kontsumoaren tasak %18,5etik 2018an %17,4ra 2023an.

Ezin dira bestelako menpekotasunak ahaztu. Prekarietateak, baliabide faltak gazteria diru-sarrera azkarrak izatera bultzatzen ditu gero eta adin txikiagoetan, eta horrek ludopatiarako bidea irekitzen du, bereziki langile klaseko jendeari eragiten diona. Ludopatia geroz eta lehenago eragiten du eta eragin handiagoa du gazteengan. "2021eko Gazteria eta jokoak Euskal Autonomia Erkidegoan" txostenaren arabera, Jokoaren euskal Behatokiak egina, gazteen % 24,9k aitortu zuen ausazko jokoan eta apustuetan jokatu duela azken urtean, nahiz eta jokatzeko eta apustuak egiteko legezko adina 18 urtekoa izan. Jokoarekiko lehen kontaktua konpainian izaten da, eta txosten horren datuek erakutsi zuten ohikoena aurrez aurre jokatzeko delat (% 69,1), baina online jokoak gorantz doala (% 10,1).

Jokoak (bai ausazkoak, bai online jokoak) elementu berritzaileak ditu orain, apustuak egiteko erraztasuna esate baterako, eta, gainera, gero eta zabalduegoa dagoen aisialdirako alternatiba gisa eskaintzen da. Hala ere, Jokoaren Euskal Behatokiaren arabera, jokalaria gazteen % 3,2k jokoarekin lotutako arazoren bat du, eta horien artean, % 0,5ek ludopatia larria.

Euskadiko gazteen osasunari dagokion atala ixteko, ez genuen oro har gazteriaren benetako drama dena aipatu gabe utzi nahi.

Bukatzeko esan, adierazle horiek guztiek, txosten batean jasotako datuak eta zenbaki hutsak diruditen arren eguneroko errealitate oso zailak ezkututzen dituztela atzean eta egunez egun kalte oso larriak eragiten dituztela.

Gazteak idazkaritzatik salatu dugu dagoeneko askotan prekarietateak pobrezia eragiten duela, eta ondorioz bazterketa. Muturreko kasuetan, gazteek ezin izaten dute jasan ondoez maila handi hori, eta beren buruaz beste egiteko erabakia hartzen dute. Euskadin, suizidioak eragindako heriotza tasak gora egin du etengabe azken urteotan, eta euskal gazteen heriotza ez-naturalen lehen kausa gisa finkatu da, trafiko istripuak baino dezente gehiago. 2023 urtean %4,5ekoa izan zen, 2018an ordea %3,1ekoa. Trafiko istripuek aldiz behera egin dute %2,1etik %1,9ra jaitsi dira 2008 urtetik 2023 urtera.

Azkenik, gai honen larritasuna aintzat hartuta azpimarratu nahi dugu bere buruaz beste egiten duten gazteen ehuneko handiagoa dela gizonezkoena, nahiz eta 2018-2023 epean emakumeen ehunekoaren hazkundera handiagoa izan den, %1,4tik %3,3ra igo da, gizonezkoena aldiz %4,8tik %5,6ra.

Prekarietateak larriki eragiten du osasun mentalean, gazteengan bereziki. Gainera, osasun mentalak duen garrantziaz gehiago jabetu den belaunaldi bat gara, osasun mentala defendatzen hasi gara, adibidez, zaintzarako eta antolatzeke espazioak aldarrikatuz, behar horientzako konponbidea bilatu ahal izateko (horietako asko oinarritzakoak) ezin direnak norberaren edo eskaintzen dizkiguten baliabideekin lortu.

Azkenaldian euskal patronalek absentismoaren alarma piztu dute. Argi eta garbi utzi nahi dugu baja medikoak ez direla lan absentismoa, absentismoa justifikaziorik gabe lanpostua ez betetzea baita. Baja medikoa absentismotzat jotzeak langileen kriminalizazioa eragiten du baja medikoan egoteagatik eta beren eskubidea erabiltzeagatik, eta horren helburua borondatea ahultzea da, enpresek eta mutuek etengabe presionatuz, gazteak lehenbailehen lanera itzul daitezten. Bestetik, ikusi dugu baja medikoa kasu batzuetan tresna sindikal bihurtzen dutela gazteek lan esplotazioak eragindako estres edo antsietate egoeratan, ez dute zalantzarik eta euren ongizatea jartzen dute enpresaren gainetik. Baja hauek errekorra egin zuten Euskadin 2023an, 43.479, %51a 2019ko zifra gainditzen duen zenbakia da

Egoera honek paradigma aldaketa eragiten du euskal gazteen lanaren inguruko pertzepzioan izan ere, ez da ez dutela sakrifikatu nahi, alferrak direla edo ez dutela aguantatzen; aitzitik, euskal gazteak ez daude prest beren bizitza sakrifikatzeko edozein unetan kaleratuak izan daitezkeen eta baloratzen ez dituzten lan batengatik; beren ongizate mentala edo fisikoa lehenesten dute enpresaren produktibitate sakrosantuaren aurretik.

Euskal gazteek urteak daramatzate kontratu partzialak eta prekarioak pairatzen, soldata baxuak, ordaindutako oporrik eza, kontziliaziorik eta aisialdirik ez, ausazko txanda-aldaketak, lan esplotazioa eta abar. Eta lanean egonkortasuna lortzen dutenean, urteetan ukatu dizkioten eskubide guztiak erabiltzeko prest daude.

4. Ondorioak

Txosten honen amaierara iritsi gara, eta datu latzak ikusi ditugun arren, datu horiek ezkutatzek ez du ezer konponduko. Gazteria antolatua, dela CCOOko Gazteak idazkaritzaren bitartez, edo lan, bizi, gizarte eta abarren baldintzak hobetzearen alde borrokatzen den beste edozein elkarte edo erakundetan, aspaldi salatu dugu egoera hau okertzen ari dela.

Uste dugu ez duela ezertarako balio alarma piztu eta izutzea gazte artean faxismoaren eta muturreko aukerek izan duten gorakada ikusita ez bagara haratago ikustera iristen, behar bada aldaketa sozial hauek gertatzeko gazteen lan eta bizi baldintzen okertzearen ondorio izan da.

Gazteok, prestakuntza bat bukatu eta gero topatzen duten ziurgabetasun egoeran, prestakuntza profesionala edo unibertsitatekoa, lan merkaturako sarbideari eta bere aldaera guztiei egin behar diogu aurre. Eta lan merkatu honetan, gazte gehienentzat ezezaguna, ez bakarrik berriak garelako eta lana nola egin ikasi behar dugulako, noski argi dugulako bizitzan gauza guztietarako beti dagoela lehen aldi bat. Baina lan mundua ezagutzen hasteaz gain, baita ere da soldata baxuak, kontratu partzialak, ziurgabetasuna, lankide eta goragokoen presioak jasatea, lan karga handiak, ordaintzen ez diren aparteko orduak, laneko bizitza bizitza pertsonalarekin uztartzeko ezintasuna, aisialdirik eza, benetako autonomia ezin aurrera ateratzea... hasiera horretako aldapa gora benetan gogorra izatea eragiten dute.

Lan merkatuan hasteari gizarte globalizatu baten osagai materialak gehitu behar dizkiogu. Sistema ekonomiko kapitalista dugu, kutsu neoliberalakoa, eta influencer militanteek gazteei bidaltzen dieten mezu bakarra da ahalegintzea, zu aberatsa izan zaitezke eta ez baduzu nahi, fucking alferra zara. Indibidualismoa sustatzen da, enpatia edo elkartasun orotatik urrun dagoen bizimodu gisa. Sare komunitarioa eta langile klasearen kontzientzia suntsitzea du helburu, klase borrokaren orde irabazleen eta galtzaileen esparrua ezarri. Eta esparru horretan, ama garbitzailea eta aita langilea duten gazteek eskuin muturreko mezuak kontsumitzen dituzte, eta gero jokabide matxista, arrazista eta klasisten bidez erreproduzitzen dituzte. Horretarako arma politikoa buloak eta desinformazioa dira, ahula dena ahulagoaren aurka jarri; hau da gazte prekarioak gazte etorkinaren aurka.

Eta noski, inguruan mezu hauek edukita erori eta zutitu behar duzu, eta berriro erori eta berriro zutitu, ahalik eta gutxien kexatu ez zaitzaten "kristalezko belaualditzat" jo..

Gazteak idazkaritzatik uste dugu badela garaia aurrera pauso bat emateko, bai, egoera askoz hobea izan daiteke, baina okerrago jarriko da mugikorraren, ordenagailuaren edo tabletaren pantailara begira geratzen bagara eta ez bagara ezer aldatzen saiatzen. Besteez ez dutela ezer egiten kexatuta baina ezer egin gabe edo ziberaktibismoan erorita ekintza era bakar moduan.

Hitz egin lagunekin, lankideekin, gizarteratu zure arazoak ahal duzun neurrian, eta lanekoak edo langile klasearen testuingurukoak badira, jakin ezazu ez zarela bakarra izango. Eta horretarako BADAGO konponbidea, ez da miraria eta ez da magiaz konpontzen, baina badago erakunde kolektibo bat zure lan baldintzak hobetzen lagunduko duena eta beraz zure bizi baldintzak, osasun mentala eta zure harremanak orokorrean. Dauzkagun eskubideak ez dizkigute oparitu, hainbat mendeetan borrokatuak izan dira, horregatik batasuna eta antolakuntzaren garrantzia, ez bakarrik lortuta dagoena babesteko, edozein despisterekin kentzen saiatuko direna, baita ere eskubide berriak lortzen jarraitzeko.

Behar bada zure nagusiak, ugazabak edo elite kapitalistak nahi dutena da zu lo geratzea beraiek zure bizitza kudeatzen duten bitartean euren nahi eta beharren arabera. Gertatzen zaigun guztia konektatuta dago eta gure lan baldintzak eta lan giroa hobetzeak, prekaritatearekin bukatzeak hobeto bizitzea eragingo du. Txosten honekin aurkezten dugun kartelean esaten dugun moduan: Orfidal gutxiago eta sindikatu gehiago.

Antolatu zaitetz Gazteaken, CCOOn eta borrokatu taldean egunez egun bizitza hobe baten alde.